

SARako herriak (2 607 biztanle)
eskolaldi inguruko animazio langile eta gelen garbiketa langile bat xerkatzen du.

Lanpostuaren eginkizunak:

Animazio langilea: langilea hurrekin lanean ariko da, eskolaldi inguruko (jantegia eta haurtzaindegia) eta eskolatik kanpoko (aisialdi zentroa, oporretan) denboretan.

3 langile iraunkorrekin batean ariko da lanean eta 3 eta 11 urte arteko haurrak zaindu eta kudeatu beharko ditu.

Horiek izanen dira bere eginkizun nagusiak:

- pertsonen, materialari eta gelei dagokionez, segurtasun aginduak errespetatzea eta errespetaraztea.
- animazio tailerrak plantan ezartzea: lankideekin hitzarturik, aktibitate ludikoak, artistikoak, eskuzkoak, heziketarakoak eta kolektiboak asmatzea, antolatzea eta kudeatzea, betiere haurren adinari, igurikapenei eta erritmoari egokitzuz.
- heziketako eta atsedendiko materiala apailatzea, instalatzea eta biltzea.

Garbiketa langilea: langileak herriko eraikinak garbituko eta zainduko ditu.

Horiek izanen dira bere eginkizunak:

- zola garbitzea,
- altzarietako errautsa kentzea eta horiek garbitzea,
- zikinontziak hustea,
- gelak aireztatzea eta deskutsatzea,
- higie eta segurtasun mailako arauak aplikatzea.

Beharrezko gaitasunak eta profilaren nolakotasuna:

Beharrezko gaitasunak:

Animazioaren arloan esperientzia profesional **adierazgarria** ukatea.

AIGA diploma ukatea.

Hizkuntza gaitasunak

Euskara menperatzea baitezpadakoa da

Profilaren nolakotasuna:

- Arduraz jokatzeko eta laneko segurtasun aginduak errespetatzea
- Haurren erritmoari kasu ematea eta horren errespetatzea
- Isiltasun profesionala segurtatzea
- Taldean lanean aritzeko gaitasuna izatea eta lana aginduen arabera antolatzeko gaitasuna izatea
- Nor bere ekintzei buruz eta hauteman arazoei edo zailtasunei buruz kontu emateko gaitasuna izatea
- Iniziatiba hartzeko gaitasuna izatea, dinamikoa izatea eta sormen gaitasuna izatea
- Puntuala izatea eta librea izatea

B gidabaimena baitezpadakoa da

Betebeharrak:

Laneko ordutegia eskola garaian

Jantegia: 12:30etatik 14:15etara
Hurtzaindegia: 16:30etatik 18:30etara
Gelen garbiketa: 18:30etatik 20:30etara

Laneko ordutegia eskola oporretan

Opor ttipietan: aste 1 urrian – aste 1 otsailean – aste 1 apirilean
astelehena – asteartea – osteguna – ostirala
(egunean 9:30 oren)

Udako oporretan: 7 aste osorik
astelehena – asteartea – asteazkena – osteguna – ostirala
(egunean 9:30 oren)

Lanpostua:

Lanpostua 2018ko irailaren 1etik goiti betetzekoa da, urte batez.

Lanpostua ez da iraunkorra, zati denborakoa da (% 80, urtekatua) eta SARAn dago (64 310).
Lurraldeko teknika laguntzaileen / Lurraldeko animazio laguntzaileen kontratu bidezko enplegu esparrua

Zure hautagaitza motibapen gutun eta curriculum batekin batera igorri, 2918ko abuztuaren 10a aitzin, helbidera honetara:

Auzapez jauna
Herriko Etxea
BP 16
64 310 SARA